

Budapest Festival Orchestra

1983an sortu zuten Ivan Fischerrek eta Zoltan Kocsisek, beren herrialdeko, Hungariako, interprete gazte onenei irteera profesional bat eskaintzeko asmoz. Hasieran hiruzpalau kontzertu bakarrik ematen zituzten urtero, baina gaur egun Budapesteko musika ikur bihurtu den talde egonkorra den hori munduko hamar orkestra onenen artean dago. Hor kokatu zuten Gramophone aldizkari ospetsuak 2008an egindako ranking batean, BBC Music Magazinek 2020an egindako beste ranking batean, eta 2022an Gramophone aldizkariaren Urteko Orkestra Onenaren saria irabazi zuen herri-bozketa baten bidez; halaber, lehen hamarren artean agertzen da musika-kritikarien panel batek Bachtrack webgunerako egindako ranking batean 2023an. 2023an bertan, orkestrak Budapesteko Liszt Akademian eman zuen lehen kontzertuaren 40 urteak ospatu zituzten, kontzertu eta bira ugari eginez. Orkestra honen ezaugarria da, halaber, interpretatzeaz gain, bere kideek elkarrekin ere abesten dutela, Ivan Fischerren aburuz, bere kalitate musikala goratzen duen ariketa baita. Hala egin izan dute, bis gisa, Hamabostaldian ere.

BFOk gualdi handiak eskaini ditu Hamabostaldian, 2009an, 2011n, 2014an, 2016an jaialdiko «orkestra egoiliar» gisa hiru bider, 2018ko udan bi kontzerturekin (horietako bat Donostiako Orfeoiarekin batera, aurten bezala) eta 2021ean, Hamabostaldiaren 82. edizioari amaiera emanez.

La Budapest Festival Orchestra fue formada por Ivan Fischer y Zoltan Kocsis en 1983, con intención de ofrecer una salida profesional a los mejores jóvenes intérpretes de su país, Hungría. En sus inicios ofrecían solo tres o cuatro conciertos anuales, pero a día de hoy es una formación estable que se ha convertido en símbolo musical de Budapest y está considerada como una de las diez mejores orquestas del mundo. Lo hizo la prestigiosa revista Gramophone en un ranking elaborado en 2008, BBC Music Magazine volvió a hacerlo en otro ranking realizado en 2020, y en 2022 ganó el premio a la Orquesta del Año de la revista Gramophone mediante una votación popular; también figura entre las diez primeras en un ranking realizado por un panel de críticos musicales para la web Bachtrack en 2023. En 2023, celebraron los 40 años de sus primer concierto en la Academia Liszt de Budapest con una intenso calendario de conciertos y giras. Esta orquesta se caracteriza, asimismo, porque, además de interpretar, sus miembros también cantan juntos, en un ejercicio que, según Ivan Fischer, contribuye a elevar su calidad musical. Así lo han hecho, en forma de bis, en su paso por la Quincena.

La BFO ha protagonizado grandes veladas en la Quincena, que ha visitado en 2009, 2011 y 2014, y con especial relevancia en 2016, edición en la que ejerció como «orquesta residente» del festival y ofreció tres conciertos. En el verano de 2018, la orquesta húngara volvió a ocupar un lugar en la programación del festival, con dos conciertos, uno de ellos junto al Orfeón Donostiarra (con el que repetirá este verano), y en 2021 actuó por última vez en San Sebastián clausurando la 82 edición de la Quincena Musical.

Ivan Fischer zuzendaria / director

Ivan Fischer zuzendaria bere belaunaldiko sormen handien duen musikarietako bat da. 1951n jaio zen, Budapestean, eta familian bertan jaso zituen pianoaren, biolinaren eta biolontxeloaren oinarrizko ezagutzak. Gero, Vienan graduatu zen, eta han Hans Swarowsky eta Nikolaus Harnoncourtengandik jaso zituen orkestra-zuzendaritzako eskolak.

Bere erreperitorioak Bach, Mozart, Brahms, Dvorák, Mahler eta Bartók ditu ardatz, eta bere lanean filosofia, antzerkia eta psikologia nahasten ditu, Schopenhauer, Stanislavski eta Jungen irizpidean aintzat hartuta. 25 urte zituela BBC/Rupert Foundation lehiaketa irabazi zuenean egin zuen jauzi nazioartera, eta horrek munduko orkestra nagusien ateak ireki zizkion. Zuzendari gisa, programa oso originalak eta arriskutsuak egiten ditu, eta emozioa eta harridura bilatzen ditu batez ere.

«Zertarako balio du zehaztasunak, hunkitzea lortzen ez baduzu ?», galdetzen zuen duela gutxi El Mundo egunkarirako egindako elkarrizketa batean, eta musikaren aurreko jarrera hori bera bat dator bira honetan lagun duen bakarlariaren pentsamoldearekin, Patricia Kopatchinskajarenarekin, alegia.

Ivan Fischer es considerado uno de los músicos más creativos de su generación. Nació en 1951 en Budapest y fue en su propia familia donde aprendió los rudimentos del piano, el violín y el violonchelo. Posteriormente, se graduó en Viena, donde recibió lecciones de dirección de orquesta de Hans Swarowsky y Nikolaus Harnoncourt.

Su repertorio se centra principalmente en Bach, Mozart, Brahms, Dvorák, Mahler y Bartók, a los que interpreta con una mezcla de «filosofía, teatro y psicología, según criterios de Schopenhauer, Stanislavski y Jung», en sus propias palabras. Su salto a la fama internacional se produjo al ganar el Concurso de la BBC/Rupert Foundation a la edad de 25 años, lo que le abrió las puertas de las principales orquestas del mundo. Como director, destaca por la confección de programas muy originales y arriesgados, y por unas interpretaciones en las que busca ante todo la emoción y la sorpresa. «¿De qué sirve la precisión si no consigues emocionar?», se preguntaba recientemente en una entrevista para el periódico El Mundo, y esa actitud frente a la música lo conecta con la solista que acompañará a la BFO en esta gira.

Patricia Kopatchinskaja biolina / violín

Nazioarteko izen handiko biolinista da, musika klasikoarekiko agertzen duen moldakortasunagatik eta ikuspegi berritzaileagatik ezaguna. Ama biolinista eta aita zinbalista zituen, eta sei urte zituela hasi zen biolina ikasten.

1989an Vienara emigratu eta, han, Musika eta Arte Dramatikoko Unibertsitatean jarraitu zuen ikasten. Geroago, Bernara joan zen ikasketak osatzera, eta Suitzako hiri horretan bizida gaur egun. Grammy baten irabazlea, Kopatchinskaja munduko orkestra onenekin aritu da bakarlari gisa: Vienako Orkestra Filarmonikoa, Berliner Philharmoniker, Estatu Batuetako orkestra handiak eta abar. Baina bere erreperorioa ez da zirkuitu sinfonikoko kontzertuetara mugatzen, musika barrokotik hasi eta konposizio garaikideetaraino zabaltzen baita. Bere emanaldiei aplikatzen dien antzerki-ikuspegiagatik ezaguna da, bere interpretazioei sakontasuna eta umorea ematen dien presentzia eszenikoarekin, esaterako, kontzertuetan oinutsik jotzen du zenbaitetan.

Gainera, bere proiektzio artistikoa biolinetik haratago doa, izan ere, erregulariki orkestrak zuzentzen ditu, programatzaile gisa jarduten du edo abeslari gisa ere aritzen da.

Nacida en 1977 en Chisináu (Moldavia), Kopatchinskaja es una violinista de renombre internacional conocida por su versatilidad y su enfoque innovador al abordar la música clásica. De madre violinista y padre cimbalista, comenzó a estudiar violín a los seis años.

En 1989 su familia emigró a Viena, donde continuó su formación en la Universidad de Música y Arte Dramático. Posteriormente, se trasladó a Berna para completar sus estudios, y es en esta ciudad suiza donde sigue residiendo en la actualidad. Ganadora de un Grammy, Kopatchinskaja ha actuado como solista con las mejores orquestas del mundo, incluyendo la Orquesta Filarmonica de Viena, la Berliner Philharmoniker y las grandes orquestas estadounidenses. Pero su repertorio no se limita a los conciertos del circuito sinfónico, sino que abarca desde la música barroca hasta composiciones contemporáneas. Es reconocida por el enfoque teatral que aplica a sus actuaciones, con una presencia escénica que aporta profundidad e incluso humor a sus interpretaciones, y con peculiaridades como tocar descalza durante los conciertos.



Además, su proyección artística va más allá del violín, pues regularmente dirige orquestas, ejerce de programadora o incluso actúa como cantante.